# Maite duzun Irun

# EGINGO DUGU.

ehbildu

ehbildu

# ETORKIZUNEKO IRUN
# Zorioneko Irun

Irundarron bizitzak atsegin eta errazagoak izan daitezen lanean dihardugu. Horretarako, lehentasunez pertsonen ongizatea bermatzen dituzten erabakiak hartu behar dira. Bizimodu osasungarria bermatuko duten hurbileko zerbitzu publikoekin hornitu behar da hiria: kalitatezko osasun-zerbitzuak, kiroldegiak, kultura-jarduerak eta gizarte ongizateko baliabideak. Azken finean, justizia sozialaren printzipioetatik abiatuta eraikiko den babes publikoko sare bat behar dugu, parekideagoa izango den Irun helburu.

Erantzuna behar duten gizarte-erronka garrantzitsuak ditugu. Krisi klimatikoak eta biztanleriaren zahartzeak gure bizimoduak aldatzera behartuko gaituzte, eta aldaketa ororekin bezala, baliatu beharreko aukera berriak zabalduko dira gure aurrean. Hori lortzeko garrantzitsua da proposamen argiak izatea zaintzan, trantsizio energetikoan, ekonomia zirkularrean, berdintasun-politiketan, mugikortasunean, kulturan edo gizarte ongizate arloan. Hauek guztiak funtsezkoak izango dira datozen urteetan. Tentuz planifikatutako neurriekin soilik egingo diogu aurre etorkizunari.

# Gure hiri eredua: Gertutasunaren hiria.

Gure hiriak eta auzoak garai berrietara egokitu behar dira, erronka berriei erantzuteko. Irungo diseinua moldatu eta auzoetan bizia erraztu beharko da, azpiegiturak eta zerbitzu publikoak hauetara hurbilduz. Egunerokotasunean beharrezkoa dena gertu behar dugu, oinez hamabost minututan eskuragarri, kalitatezko bizitzak ziurtatuz.

- Oinarrizko zerbitzu eta azpiegiturak auzoetan. Herritarrentzako Arreta Zerbitzua, Gizarte Ongizate zerbitzua, kirol ekipamendu publikoak (baita estaliak ere) eta kultur eskaintza, besteak beste. CBA liburutegiarekin lotura duen auzo liburutegien sarea bultzatuko dugu.
- Auzoz auzo, hiriaren diagnosi eta planifikazioa egingo dugu, auzo bakoitzean irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko helburuarekin: argiztatzea hobetu, espaloiak zabaldu eta egokituko ditugu, irisgarritasun zaileko guneak identifikatu eta horietan igogailu eta eskailera mekanikoak jarriko ditugu.
- Auzotarrek elkarrekin bizitza egin ahal izateko espazioak: bizilagunen elkargunea izateko leku estali, edota espazio ireki eta zabalak identifikatu eta sortuko ditugu.

ehbildu

# Elkar zaintza, bizitza duin baterako eskubidea.

Gehiago bizi garen heinean, populazioa zahartzen doa. Uneren batean, denok izango dugu zainduak izateko beharra. Pertsonen autonomia maila denboran ahalik eta gehien luzatzeko ikuspegitik erantzun behar diogu errealitate honi, eta ondoren, menpekotasun egoera baten aurrean, bizitza duin bat bermatuko duen zaintza sistemaren bitartez. Zentzu honetan honakoa proposatzen dugu:

- Bizitza osorako etxebizitzak: Bizitza osorako etxebizitzen proposamenarekin dependentzia egoeran dauden pertsonak etxean bizi ahal izatea bilatzen dugu, bakoitzaren zaintza-behar zehatzak edozein direla ere. Honela, adineko bikote bati beste 10 edo 20 urtez elkarrekin zahartzen jarraitzea ahalbidetzen zaio, une bakoitzean dituzten beharretara egokitutako kalitatezko zaintza emanez.
- Aukeratu ez den bakardade egoerei erantzuteko auzoetako zaintza zerbitzu bat martxan jarriko dugu.
- Zaintzaileen zaintza: Etxeetako zaintzaileei bideratutako bulegoa sortuko dugu, langileei aholkularitza eta laguntza emateko funtzioa izateaz gain, familia eta zaintzaileen arteko bitartekaritza ere egingo duena. Bide batez, zaindua izango den pertsonak zaintza egokiak jasotzea bermatuko da, eta langilearen lan-baldintzak egokiak direla ikuskatu ere.

# Kulturaren hauspotzea, hobetu beharreko ikasgaia.

Eragile kulturalek protagonismo handiagoa hartu behar dute hiriko kultura politikari dagokionez: eragileen arteko elkarlana, zein eragile eta udalaren artekoa bultzatzea ezinbestekoa da.

Bere aldetik, Udalak Kulturaren aldeko apustu garbiagoa egin behar du, herritarrei zein egunerokotasunean kulturarekin lan egiten duten eragileei baliabide gehiago bideratuz. Gure hiriaren kokalekuaren berezitasunak baliatuz gero, lurraldeko kultur erreferentea bilaka gaitezke.

- Irungo Kafe Antzokia: Bertako artistentzat eta eskaintza kultural ezberdinetan erreferente diren talde eta pertsonentzat topaleku izango den antzokia sortuko dugu. Kafe Antzokiak kultur eskaintza sendotu eta aberastuko du eta kultur eragileekin batera kudeatuko da.
- Kultura auzoetara eramateko programa: Irungo auzoetan ere kulturarentzat azpiegiturak sustatu, Udala, Auzo Elkarte eta artisten arteko lankidetza, eta urte osoko kultur programazioa.
- Txingudiko bailaran Zirkuitu Kulturala: Hendaia, Hondarribia eta Irungo eragile eta Udalekin aliantzak sortuz, eskualde osorako kultur zirkuitu bat martxan jarriko dugu.
- Erabilera askoko pabiloiaren proiektua.

ehbildu

# Trantsizio energetikoa, ibili beharreko bidea.

Klima aldaketa gizarteak duen erronka nagusietakoa da. Instituzio desberdinek duten eragiteko ahalmena handia da: udalek, herritarraren lehen atea izanik, asko dute egiteko.

Egiteko asko dago eta gure energia-kontsumoa lurraldetu behar dugu, gure kontsumoez ardura hartzen. Gure lurraldean energia sortzeko aukerak aztertu behar ditugu, gaur egun dugun menpekotasuna txikitu eta burujabetzan aurrera egiteko. Horrela bakarrik lortuko dugu energia enpresa handiek botere publikoan duten eraginari aurre egitea.

Hilabetero etxeko fakturak arrazoirik gabe igotzen direla ikusten dugun bitartean, energia enpresen irabaziek ere gora egiten dute. Honi aurre egiteko badira alternatibak.

- Anaka, Puiana eta Urdanibia auzoetan eguzki-panelen bidez komunitate energetikoa sortzea. Puiana Kaleko Udal lurzatia baliatuz bertako familia eta sektore industriala batuko ditugu, onura sozial eta ekonomikoak ekarriz.
- Irungo Energiaren Etxea: herritar, merkatari, enpresa edo bestelako eragileek energia eta kontsumo gaietan aholkularitza eta laguntza jasotzeko ekua izango da, besteak beste.
- Pobrezia energetikoari aurre egiteko protokoloa abian jarriko dugu.

# Kirol Hiria; hirugarren kiroldegitik, kirolaren herrira.

Kirola ongizate fisiko eta mentalaren osagaietako bat da, eta irundar guztiek izan behar dute kirola egiteko aukera.

- Landetxa, Anaka, Belaskoenea, Lapitze, Oinaurre eta Urdanibiako auzoetako hiritarrei zerbitzua emango dien hirugarren kiroldegi bat behar du Irunek, bere igerileku eta azpiegitura estaliekin.
- Erabilera askoko pabilioia: Pabiloi berri bat bultzatuko dugu, Irungo klubekin elkarlanean, eskualdeko kirola hauspotzeko.
- Auzoetan kirola libreki praktikatu ahal izateko azpiegiturak bideratuko ditugu.
- Zahartze aktiborako programa: udaletik zahartze aktiboa bultzatzeko urteko jardunaldiak sustatuko ditugu.
    - 60 urtetik gorako pertsonei zuzendutako kirol jarduerak.
    - Irundik barrena: Irungo hiriko eta inguruetako ibilbide atsegin eta irisgarrien mapa.

ehbildu

# Gazteen emantzipazioa, bizitza berrien garaia.

Emantzipazioa norberak bere bizitza proiektua osotasunean garatzeko ahalmena da. Irungo gazte askok, aldiz, emantzipatu ezinik jarraitzen dute, eta lortu dutenek, euren soldataren ia osotasuna alokairua ordaintzera bideratzen dute. Instituzioetatik egoera hauei erantzun behar diegu, gure gazteek bizitza proiektu bat hasteko aukera izan dezaten, hitzeman genien bezala.

- Gazteentzako alokairu sozialak.
- Osasun mentalerako programa: 14 eta 35 urteko gazteei bideratutako osasun mentaleko programa abian jarriko dugu, zerbitzu hauetara sarbidea erraztu eta bermatzeko helburuarekin.
- Aisialdi aukera berriak hirian: urte osoko programazio baten bidez, aisialdia eta kultura ekimenak bultzatuko ditugu, gazteak ez ezik, hein batean nagusiagoak direnei ere bideratuak.

ehbildu

# Eskualdeko mugikortasuna hobetzeko erronka.

- Eskualdeko autobus zerbitzuak hobetuko ditugu:
  - Irungo, zein Bidasoko autobus linea guztien ordutegiak eta ibilbideak aztertu eta birdefinitu, intermodalitatea ahalbidetzeko
  - Irunbuseko zerbitzuen maiztasunak handitzea, autobus linea guztiek 15 minuturo zerbitzua eman dezaten.
  - Hirian zehar autobusentzako lehentasunezko bideak ezartzeko aukerak aztertuko dira.
  - Irun, Donostiako Ospitale eta zonaldeko industrialdeekin lotzeko linea berriak.
- Aparkaleku disuasiorioen azterlana egin, eta aukera egonez gero proiektu bat abian jarriko dugu.
- Bizikletaren erabilera sustatzeko neurriak:
  - Eskualdeko bizikleta elektrikoen zerbitzu publikoa.
  - Bizikletentzako aparkaleku seguruen sarea: Trenbide eta topo geltokietan, industria eta merkatal guneetan, anbulategietan, ospitalean edota eskola inguruetan.
  - Egungo bidegorrien diseinu berria egiteaz gain, Irun eta Hondarribia lotuko dituen bidegorria bultzatuko dugu, Mendelu auzotik barrena.
  - Hondarribia eta Via Irun proiektuaren baitan aurreikusia dagoen geltoki Intermodala lotuko duen bidegorria, San Miguel-Anaka zeharkatuko duena.
  - Familia errentaren araberako bizikleta elektrikoen erosketarako dirulaguntzak.

ehbildu

# Balio duenari balioa eman, tokiko merkataritza.

Tokiko merkataritza ezinbestekoa da Irunen zein Gipuzkoa osoan; gure hiri eta herriak ehundu egiten dituen jarduera da, kaleetako bizitza ere bermatzen duena. Irungo merkataritzak iraganean izandako erreferentzialtasuna galdu du, eta hau berreskuratzeko Udaletik ere gaiari eskua hartu behar diogu.

- Egungo egoeraren azterlana eta itxitako komertzioen diagnosia egingo dugu, itxieren arrazoiak zeintzuk diren argitzeko.
- Tokiko Merkataritzaren Plana:
  - Irungo merkatal zonalde nagusietan esku hartze zehatzak bultzatu.
  - Lokal hutsen eraberritze programa.
  - Establezimenduen eraldaketa eta irisgarritasuna bermatzeko ekintzak.
  - Komertzio historikoen zigilua.
  - Urte osoko dinamizazio programa.
  - Auzoetako kontsumoa suspertzeko Irungo auzoetako merkataritza txikiari zuzendutako programa.

# Maite duzun Irun EGINGO DUGU.

*Mejorar para avanzar.*

ehbildu

# EL FUTURO IRUN
# La suerte de vivir en Irun

Nuestro propósito es construir un Irun donde la vida sea más fácil y agradable. Para ello hay que tomar decisiones que prioricen el bienestar de las personas. Hay que dotar a la ciudad de servicios públicos de cercanía que faciliten una vida saludable: servicios de salud de calidad, polideportivos, actividades culturales y recursos de bienestar social. En definitiva, una red de protección pública que se construya desde los principios de la justicia social y tenga como objetivo una ciudad más igualitaria.

Tenemos retos sociales importantes a los que hay que dar respuesta. La crisis climática y el envejecimiento de la población nos van a obligar a cambiar nuestros modos de vida. Y todo cambio genera también grandes oportunidades que debemos aprovechar. Para ello, es importante tener propuestas claras en el tema de los cuidados, la transición energética, la economía circular, la igualdad, la movilidad, la cultura o el bienestar social.  Estos temas serán claves en los próximos años, y sólo con una buena planificación podremos afrontar el futuro.

# Nuestro modelo de ciudad: Una ciudad de cercanía.

Debemos adaptar nuestras ciudades y barrios a los nuevos tiempos y así poder enfrentar los retos que tenemos delante. El diseño de Irun debe facilitar la vida en los barrios, acercando a ellos las infraestructuras, los servicios públicos y lo necesario en la vida diaria a quince minutos a pie, permitiendo una vida de calidad.

- Servicios públicos básicos en cada barrio: Servicio de Atención a la ciudadanía, bienestar social, equipamientos deportivos (también cubiertos) y programación cultural. Se impulsará una red de bibliotecas de barrio que estarán conectadas con el CBA.
- Diagnóstico y planificación barrio a barrio para garantizar la accesibilidad y seguridad en cada uno de ellos: ensanchar y adecuar aceras, mejorar la luminosidad e identificar las zonas de difícil acceso para la colocación de ascensores o escaleras mecánicas.
- Lugares de encuentro en cada barrio: identificar y crear lugares para el esparcimiento en cada barrio, tanto espacios abiertos como cubiertos, y adecuarlos para el disfrute de las y los vecinos

# Cuidar y ser cuidado, el derecho a una vida plena.

Cada vez vivimos más, y cada vez somos una población más envejecida. Todos y todas necesitaremos, en algún momento de nuestras vidas, ser cuidados. Debemos abordar este tema desde el objetivo de garantizar la autonomía de las personas el máximo tiempo posible, para contar después con un sistema de cuidados a personas dependientes que garantice poder seguir teniendo vidas dignas. En este sentido proponemos lo siguiente:

- Viviendas para toda la vida: Con este tipo de vivienda buscamos posibilitar que personas con alguna dependencia sigan viviendo en una casa, independientemente de las necesidades que tengan. Viviendas que permitan que parejas mayores puedan seguir envejeciendo juntas durante 10 o 20 años más, y donde reciban unos cuidados de calidad, adaptados a la situación y al momento en el que se encuentran.
- La creación de un servicio de barrio contra la soledad no deseada.
- Cuidar a quien cuida: una nueva oficina de asesoramiento y apoyo a trabajadoras de cuidados domiciliarios, donde también se facilite el contacto entre familias y cuidadoras, y se garantice que éstas cuenten con unas condiciones laborales dignas.

# Potenciar oferta cultural, una asignatura pendiente.

Los agentes culturales deben tomar un mayor protagonismo en las políticas de cultura de la ciudad; se debe impulsar una colaboración permanente, tanto entre los propios agentes culturales, como el de éstos con el Ayuntamiento.

Por su parte, el Ayuntamiento debe apostar por dotar de más recursos, tanto a la ciudadanía, en general, como a quienes dedican su día a día a la cultura. Debemos aprovechar las características tan especiales del lugar donde vivimos para poder ser un lugar de referencia cultural en el territorio.

- Irungo Kafe Antzokia: Crear un Teatro (Antzoki) que sea un lugar de encuentro tanto de artistas locales, como de personas y grupos referentes en distintas disciplinas de la cultura. Haciendo una gestión conjunta con los agentes culturales, reforzaremos y enriqueceremos la oferta cultural del municipio.
- Programa para acercar la cultura a los barrios: infraestructuras culturales en los barrios, cooperación entre Ayuntamiento, artistas y AAVV, un circuito permanente de actuaciones.
- Circuito cultural de la bahía de Txingudi: generar alianzas con agentes y ayuntamientos de Hendaia y Hondarribia para crear un circuito de programación cultural de toda la comarca.
- Impulso al proyecto del pabellón multiusos.

# La transición energética y el camino que debemos recorrer.

El cambio climático es uno de los mayores retos a los que nos enfrentamos hoy en día. Para ello, el margen de actuación de las diversas instituciones del país es muy amplio, empezando, sin duda, desde las más cercanas a la ciudadanía que son los ayuntamientos.

Son múltiples y multifactoriales las acciones a realizar, pero sin duda, hay que empezar por territorializar nuestro consumo energético, por hacernos cargo de nuestros consumos y por lo tanto, analizar cómo podemos generar energía en nuestro propio territorio con el fin de alcanzar un alto grado de autosuficiencia y contrarrestar la influencia de las empresas energéticas sobre los poderes públicos.

Existen alternativas a este modelo de las grandes empresas energéticas que siguen ganando dinero mientras que a la ciudadanía ve cómo su factura sigue subiendo mes a mes.

- Una nueva comunidad energética en los barrios de Puiana, Urdanibia Berri y Anaka. Se usará el terreno municipal de la calle Puiana, uniendo a familias y al tejido industrial de la zona, y generando beneficios socioeconómicos.
- Casa de la Energía de Irun: se tratará de un espacio donde la ciudadanía, los comercios, las empresas y otros agentes recibirán apoyo y asesoramiento en materia energética.
- Un Protocolo contra la pobreza energética.

# La ciudad del deporte; del tercer polideportivo, al deporte para todos y todas.

El deporte es uno de los ingredientes del bienestar físico y mental, y toda la ciudadanía tiene que poder practicarlo.

- Tercer polideportivo en la parte oeste de la ciudad, con piscina e infraestructuras cubiertas. Irun necesita un tercer polideportivo para los barrios de Landetxa, Anaka, Belaskoenea, Oinaurre y Urdanibia, con su respectiva piscina e instalaciones deportivas cubiertas
- Pabellón multiusos. Impulsaremos el proyecto del Pabellón Multiusos, que en cooperación con los clubes de Irun, incentivará el deporte de toda la comarca.
- Infraestructuras cubiertas para la práctica del deporte libre en los barrios.
- Programa de envejecimiento activo: Desde la visión de hacer deporte a cualquier edad, el Ayuntamiento impulsará actividades para el envejecimiento activo.
  - Impulso de actividades deportivas para personas mayores de 60 años.
  - Caminando por Irun: mapa de rutas amables por la ciudad y sus alrededores.

# Juventud y emancipación, el tiempo para vidas nuevas.

La emancipación se traduce en la capacidad de desarrollar un proyecto de vida y, sin embargo, vemos cómo las y los jóvenes de Irun siguen sin poder emanciparse, o quienes lo han hecho, se ven obligados a destinar la mayor parte de su salario al alquiler. Desde las instituciones debemos dar respuesta a las necesidades de la juventud para que puedan iniciar sus proyectos de vida, tal y como se les había prometido.

- Viviendas públicas en régimen de alquiler dirigidas a jóvenes.
- Programa de Salud Mental: Un programa para facilitar y garantizar el acceso a los servicios de salud mental para jóvenes de entre 14 y 35 años.
- Nuevas alternativas de ocio en la ciudad: La promoción de más actividades culturales y de ocio durante todo el año, dirigidas tanto a jóvenes, como a jóvenes adultos.

# El reto de mejorar la movilidad de la comarca.

- Mejora en la red de autobuses de la comarca:
    - Redefinir los horarios y los trayectos de las líneas de autobuses para facilitar la intermodalidad.
    - Ampliación de frecuencias en las líneas de Irunbus para que den servicio cada 15 minutos.
    - Implantación de carriles bus.
    - El impulso de nuevos servicios de autobuses que unan Irun con el Hospital de Donostia y las zonas industriales de alrededor.

- El estudio e impulso de aparcamientos disuasorios.
- Facilitar la movilidad ciclista:
    - Un servicio público comarcal de alquiler de bicicletas eléctricas.
    - Red comarcal de aparcamientos seguros en zonas estratégicas: paradas de tren/topo, zonas industriales y comerciales, ambulatorios, hospital y escuelas.
    - Rediseño de bidegorris actuales y construcción de un bidegorri para unir Irun y Hondarribia a través del barrio de Mendelu. Definir un bidegorri que una Hondarribia con la nueva estación Intermodal de Vía Irun por San Miguel-Anaka.
    - Ayudas para la adquisición de bicicletas eléctricas, según la renta de la unidad familiar.

# El comercio local, dar valor a lo que tiene valor.

El comercio local y de proximidad es imprescindible, tanto en Irun como en toda Gipuzkoa; es una actividad que teje nuestras ciudades y pueblos y genera vida en las calles. Sin embargo, el comercio de Irun ha perdido la referencialidad que tuvo en el pasado, el Ayuntamiento debe dar un impulso al comercio local para revertir esta situación.

- Estudio y diagnóstico de la situación actual para conocer las razones por las cuales se están cerrando negocios en Irun.
- Plan de Comercio Local:
    - Impulsar intervenciones específicas en las principales zonas comerciales de Irun
    - Puesta en marcha de un programa de reforma de locales vacíos.
    - La transformación de establecimientos y la mejora de la accesibilidad.
    - Un sello de comercios históricos.
    - Un programa de dinamización para todo el año.
    - Un programa específico dirigido al pequeño comercio de los barrios para estimular el consumo en los mismos.